

ERRIKETEA

UDALKIDEAGAZ

Bilbao'ko udalkide (kontzejal) batetaz,, euskera egilleen nagusi dan Olaetxea'tar Jose Erramon'egaz, alkar-izketa luze bat izan dot joan dan illean.

—Kaixo, aspaldiko ! Poztuten nok, eu, beti lez, ain aurpegi argitsu ta irribarrez ikusteaz.

—Eu be itxuraz ez abil txarto ! Bai ba, bizi-modu trankilla, ardura aundi bakoa!

—Tirok ba. Eure oraingo arazoa Udaltxean daukat eta, eugaz gai batzui buruz berba egiteko asmoa jaukat. Ba-deritxok, gure arteko oraingo berbeta au zuketa giza-tsuz izango dok, iketaz baiño obeto, naizta antxiñako euskaldunak, Gorbei'ko artzaiñak eta errietako mutikoak iketa-zaleak izan.



BATUA ALA BIZKAIKOA?

Zu, Olaetxea, bizkaitarra zara ta, ez zara izango euskera batuaren lagun...

Jakiña, Egiluze, guk geure euskalki edererra onartu bear dogu. Guk bizkaieraz beti. Ostantzean ez gintzake izango jatorrak.

—Nik, beintzat, ezin dot ulertu be egin bizkaitarrok, Bizkai Jaunerriko semeok, Bizkaia'n batua sartzeko idazlanak, ikasketak, ekiñaldiak eta alegiñak egiten ibiltea.

Nire ustez, olakoak oneitariko akatsen bat dauke: Jatorrezak, biurriak, nortasunbakoak, kargu-zaleak, arroputsak...

—Ez da ainbesterako izango. Zu apur bat leiatsu zara izan !

ATZERATU

—Batuzaleak errazoi au ipinten daukue: Gure izkuntzeak irautea nai ba'dogu, batua egin bearko dogu. Baiña nire ustez ori ez da orrelan, euskalkiak zaintzen ez ba'doguz, eukerea gaisotu egingo jaku eta banatasunaren aberastasun ederra galdu egingo dogu.

Bizkaia'n batua sartu zanetik, «euskerea sakabanatu egin da» GAMA idazle ospetsuak esaten eban lez edo Ajuriagerra'k iñoanez, «Eun urte atzeratu da».

—Bai. Ori egia da. Orretan artez zabiltz.

EUSKALKIAK

—Orain urte batzuk, Mitxelena'k Bizkai'ko erri baten bere berbaldia egin eban batuaren alde. Euzkadi'n gauza bateri amar izenez deitu leikiola, baiña izen bategaz deitu bear jakola esan eban, batua egiteko. Erriak go-

rrotoa artu eutson eta arrika egiteko gogoa be ba-euken batzuk.

—Baiña ez deritxazu Aberri baten batasunak izkuntza batu bat eskatzen dauala?

—Ez gizona, ez. Ara an gugandik urrin dagozan Beljika ta Suiza, adibidez. Bakoi-txak iru edo lau izkuntza izanik be, aberri maite bat dauke.

Zergaitik ba, guk geure euskalkiai sendo eutsi eta eurak apaindu ta aberastu ez? Orregaitik Euzkadi bat izango da.

Gaiñera, batzuntzat batua, gipuzkera osotua izango ei da. Eta euskalkirik ederrena, eta orain-arte zabalduena, amilka doa.

Txomin Agirre, Kirikiño, Azkue, Sabin Arana, Enbeita, Gama... eta orain bizi diran Zubikarai, Kerexeta, Onaindia, Olazar, Zubiri, idazle ospetsu onein euskalkiari jaramonik be ez? Izan leiteke ori bide zuzen eta zentzunezkoa?

IDAZLEAK

—Ez. Ori ez dago ondo. Guztiz txarto dago.

Aitatu dozuzan euskal idazle orreik eta Bizkaia'n dagozan beste askok, gutzat eredu izan bear leukee eta euskera ondo ikasteko euren liburuak eta idazkiak irakurri bear doguz, dagozan lez, bizkaieraz. Sekula be ez batura biurtuak. Joan dan illeko egun baten Zubikarai'k, berau dogu euskal izparlari zarra ta ona, «DEIA»n idatzi eban bere samintasuna agertuez: «Txomin Agirre ta Kirikiño'ren idaztiak batura itzuli gure dabez. Ez ete da ori ostiko bana eurai emotea?».



DIRU-BATZEA

Ederto be ederto gogaldu dozu gai ori, Olaetxea lagun orrek. Baiña batuzaleok egiten daukuen gauzarik mingarriena, iguin-garriena, azpikeri, maltzurkeri, ausarkeri ta aurpegi gogorrez Bizkai'ko erriari diarua kentzea da, eta ori euren ondasunik ederrena galtzeko, zapaltzeko ta baztertzeko. Eta guk Bizkai'ko euskerea zaintzeko daukagun EUSKERAZALEAK taldeak ez dau artu oraindiño zentimorik be.

EGILUZE